

Xipri Arlaellaide

APAIZA ETA IDAZLEA

Gaurko esklaboak

Martxo erdian, egunkarian irakurtzen nuen nola Nafarroan gelditu dituzten prostituziotik bizi ziren hamahiru gizon. Brasilgo toki pobreenetako neska polit zenbaiti lana hitzeman Espainian. Ongi pagatua. Zaragozako aireportuan hartu. Bidaia saria eskatu. Dirurik ez izanez, zorra pagatzeko, *Club de alterne* batean sartu eta hor hasi “lanean”. Hamabi oren segidan egunero, komunetara joateko ahala bera ukatzen zietela. Batzuetan egunean apairu bakar bat baizik ez zuten. Klubetik ez zitezkeen atera ez bazen konfiantzazko norbaitek “lagundurik”.

Gauza batek harritu nau artikulua irakurtzean. Gazte bat Molotov koktelak botatzen hartzen badute, biharamunean prentsan agertzen dira honen izen, abizen, herri eta guztiak. Kasu honetan ez da izen bihirik agertu. Molotov koktel baten botatzea, neska zenbaiten esklabo egitea baino huts handiagoa ote da? Egia erran, esklaboen trafikoa XXI. mendean debekatua den, dudak badituz.

Gizon horiek gelditu baldin baditu poliziak, iduri luke baietz. Baina ikusi dut *Club de alterne* batean dituztela gelditu. Nire zozonan badakit zer diren klub horiek. Bestek bezala badakit, neska zenbait beren gustuz sartzen badira hor, gutiz gehienak esklaboak



DANI BLANCO

direla. Brasilgo neska horiek iduriak. %90 irakurri dut nonbait.

Poliziak badaki non dauden. Duela dozena erdi bat urte, Gasteizko legegai baten kariatara *Berriak* bete bi orrialdeetan ikusi dut mundu hori biziki ontsa ezagutua zela. Araban, adibide bat hartzeko, 342 neska dira (ez 341 edo 343), 30ek karrikan bilatzen dute bezeroa. 102k Gasteizko putetxeetan, 180k herrietako klubetan, 30ek etxebizitzetan. Ez niri galda zer den putetxe eta klubaren arteko diferentzia. Erosi bezala saltzen dizuet. Baina datu horiek erakusten dute, mundu hori oso ondo menperatzen dutela. Orduan galdera bat: gehienak esklaboak izanez, nolaz ez ditu poliziak denetan libratzen Nafarroan bezala?

Frantziako lehendakari izateko zen Dominique Strauss-Kahn (DSK) saltsa horietan sartua baita, *Le Monde* egunkariak idazten zuen nola, jaun horren eskuetan izan neska batek jujeari erran dion, haren gustuko zerbait ez egin nahi eta, beste gizon batek ukarrietarik hartu duela eta, nahi ala ez, DSK utzi behar izan duela bere fantasmen asetzera. Esklaboez baliatzen diren “bezeroak”, ez dira hutsean?

Lan ala sexuaren esklabo, haur, emazte eta gizon, gure esklaboak 12,3 milioi dira munduan OITren arabera. ■



«
Ez niri galda zer den
putetxe eta klubaren arteko
diferentzia. Erosi bezala
saltzen dizuet. Baina
datu horiek erakusten
dute, mundu hori oso
ondo menperatzen dutela
»

TXANDAN

Amatiño



Nafarroako Erresumak hainbat mendetako burujabetza galdu zuen 1512an, armetan galdu ere. Eta ez dago batere arrazoirik galera hura nafarren gogoz kontra izan zenik ukatzeko. Bostehun urte geroago bada mendeurrena ospatu nahi duenik. Baita gaur egun agintean dauden ospakizun otzana zorrotz salatu nahi duenik ere. Dena den, auskalo orain bostehun urteko nafarren borondate politikoa eztabaidatzerik ote dagoen ala ez, baina egungoa ez behintzat.

Beharbada, batzuen eta besteen jarreraren arteko

Nafarroa 1512–2012

benetako eztabaida besterik da, alegia: egungo egoera nafarren gogoko dela uste dutenek nahi lukete oraingoa ordura eraman; eta ordukoa garaiko nafarren gogoko ez zela izan diotenen, berriz, nahi lukete ordukoa hona ekarri.

Biak ari dira nolabait iruzurretan. Baina beldur naiz bostehun urteren bueltan orainak, oro har, ez ote duen iraganak baino gehiago balio. Izan ere, orain bada 1512an Nafarroan ez zenik: hauteskundeak. Eta hauteskundeak, kiroletan ez bezala, parte hartzeaz gainera, irabazteko dira. ■

